



Memoria 2011

2011ko txostena



Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Garapenerako Lankidetzak
Cooperación para el desarrollo



AURKIBIDEA

I. GETXOKO UDALAREN LANKIDETZAREN IKUSPEGIA 2011. URTEAN	2
1.1. Helburuak	2
1.2. Datu orokorrak	3
II. LANKIDETZAKO PROIEKTUAK	5
2.1. Diru-laguntzen urteroko deialdia	5
2.2. Erabilitako Liburuaren VI. Azoka Solidarioa	11
2.3. Euskal Fondoarekin sinatutako Hitzarmena	12
2.4. Garapenerako lankidetzako proiektuen banaketa geografikoa	14
III. GARAPENERAKO SENTSIBILIZAZIO ETA/EDO HEZIKETA PROIEKTUAK	16
3.1. Diru-laguntzen deialdia	16
3.2. Zuzeneko exekuzioa	18
3.2.1. Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2011	18
3.2.2. Palestinari eta Nazio Batuetan sartzeak eragindako oihartzunari buruzko jarunaldiak ...	18
3.2.3. Giza Garapenerari buruzko 2011. urteko Txostena	19
3.2.4. Giza Eskubideak okupatutako Saharan	19
IV. HARRERA PROIEKTUAK	20
4.1. Diru-laguntzen deialdia	20
4.2. ATFAL Sahara Aldeko Getxorekin sinatutako Hitzarmena	21
4.3. Zuzeneko exekuzioa	22
V. LARRIALDIETARAKO ETA/EDO LAGUNTZA HUMANITARIOAK	23
5.1. Larrialdia Omerequen (Bolivia)	23
5.2. Euskal Karabana Solidarioa Sahararekin	23
VI. GETXOKO GGKEak SENDOTZEA	24
VII. BESTE JARDUERAK	25
7.1. Burututako beste jarduerak	25
VIII. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN LAN TALDEA	26

2011. URTEKO GETXOKO UDALAREN LANKIDETZARI BURUZKO I. IKUSPEGIA

1.1. Helburuak

2008-2011 Legealdiko Planean aipatutakoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Saileko helburu estrategikoa Getxoko Garapenerako Lankidetzaren Sailaren programa sendotzea eta bultzatzea da. Horretarako hurrengo ekimenak garatu dira:

- ✓ Udal aurrekontuko diru-sarreraren %0,7 Garapenerako Lankidetzaren erabili.
- ✓ Getxoko hiritarrak garapenean sentsibilizatzea eta hezteak.
- ✓ Bidezko Merkataritza sustatzea bai Udalaren barruan eta bai getxoko hiritarren artean.
- ✓ Udaleko GKEekin koordinazio eta aholkularitza lana bultzatzea Lan Taldetik.
- ✓ Gutxietsitako herrialdeetako pertsonen bizi kalitatea hobetzea xede duten proiektuei diru-laguntzak ematea.
- ✓ Larrialdizko edo laguntza humanitarioko egoerak arintzea xede duten proiektuei diru-laguntzak ematea.
- ✓ Genero ikuspegia baloratzea garapenerako lankidetzarako diru-laguntzak emateko irizpide gisa.
- ✓ Genero adierazleen eranskina diru-laguntzetarako urteko deialdiaren barne sartzea.
- ✓ EUSKAL FONDOAN parte hartzea, proiektuak finantzatzuz eta bere Zuzendaritza Batzordean parte hartuz.
- ✓ Saharako haurrak hartzeko OPORRAK BAKEALDIAN programak eta Europako ekialdeko haurrak hartzeko programak sustatzea.
- ✓ Diru-laguntza emandako proiektuen jarraipen eta ebaluazio lanak burutzea.
- ✓ Lankidetzaren esparruan lan egiten duen udal elkarte-sarea sendotzea.



1.2. Datu orokorrak

2011. urtean, Lankidetzaz Saileko aurrekontu osoa **593.007,70** euroetan izan da. Hauek izan dira burututako jarduerak nagusiak:

- **382.000** euro proiektu hauetarako diru-laguntzen urteko Deialdian:
 - Lankidetzarako 12 proiektu 320.400 euroetako zuzkidurarekin
 - Sentsibilizaziorako 4 proiektu 54.000 eurotan
 - Harrerarako 2 proiektu 1.600 eurotan.
 - Lankidetzaz humanitario eta/edo larrialdietarako proiektu 1 6.000 eurotan (Bolivia).
- **56.618,70** euro Euskal Fondoarekin sinatutako hitzarmenerako.
- **18.000** euro Oporrak Bakealdian Programarako.
- **18.000** euro Saharako Karabana Solidariorako.
- **35.253,33** euro XIV. Getxotik Mundura Mundutik Getxora programarako.
- **18.720** euro Getxoko GKE sendotzeko diru-laguntzen Deialdirako.
- **9.839,96** euro, beste sentsibilizazio jardueretarako.

Hala ere, Udaleko beste Sailekin garatutako lankidetzaz ere kontuan hartu behar dira, horiei esker, lankidetzarako erabilitako baliabideak nabarmen ugaltzen baitira.

Hauek izan dira lankidetzaz sailarekin kolaboratu diren Udaleko beste sailak eta erakunde autonomoak: Aukera Berdintasuneko Saila, Getxo Kirolak, Getxoko Kultur Etxea, Getxolan, Komunikazio eta Kontratazio Saila.

Saila hauei esleitutako baliabideak ekonomikoak ez ezik, aurretik aipatutako Sailetako langileek erabilitako denbora ere kontuan hartu beharko litzateke.


Honako hau izan da diru-laguntzen deialdien, hitzarmenen eta zuzeneko exekuzioaren bidezko baliabideen esleipena, lankidetzaz sektoreen arabera banatuta:

1. Taula

Sektorea	Euroak
Lankidetzaz Proiektuak Hegoaldean	377.018,70 €
Garapenerako sentsibilizazio eta heziketa proiektuak	99.093,29 €
Laguntza humanitarioa edo larrialdizkoa	24.000,00 €
Harrera	19.600,00 €
Getxoko GKE sendotzea	18.720,00 €
Guztira	534.219,99 €


Ondoren, 1. Grafikoan sektoreen arabeko banaketa islatzen da, euren ehuneko ordezkapena oinarri hartuta. 2011. urteko datuak aurreko urtekoen antzekoak dira.

1. Grafikoa



2. grafikoan, Lankidetzaz Sailak 2005. urtetik 2011. urtera arte izandako aurrekontuaren eboluzioa zehazten da. Ikusi daitekeen bezala, Saileko eboluzioa geroztik eten gabe hazi da: %23,54 igo da 2005etik 2011ra arte. 2009tik 2010era arte atzerapen txiki bat eman zen, 2009. urtean aurrekontu partidara 2008. urtean emandako eta 2009. urtean itzultitako diru-laguntzaren itzultzea sartu zelako. Sailaren eboluzio historikoari dagokionez, aipatu behar da 1992. urtean, 6.010 euro gorde zirela, 2000. urteko 180.000 euroetatik, edo 2002. urteko 450.000 euroetatik pasatuz. Ikusi daitekeen bezala, Getxoko Udalaren konpromiso solidarioa urtetik urtera finkatuz joan da, eta deszentralizatutako lankidetzaren erreferente bilakatu da.

2. Grafikoa



II. LANKIDETZA PROIEKTUAK

Lankidetzaz proiektuen esleipenak bi bideetatik egiten dira. Lehenengoa diru-laguntzen urteko deialdiaren bidez egiten da. Bigarrena, berriz, ondorio horretarako, lankidetzaz eragile desberdinekin sinatutako hitzarmenen bidez burutzen da.

Ondoren, laburbilduz 2011. urtean finantzatutako proiektuak aurkezten dira.

2.1. Diru-laguntzetarako urteko deialdia

2011. urtean, herrialde behartsuetarako lankidetzaz proiektuetan erabilitako zenbatekoa 320.400 euro izan da. Guztira, 12 proiektu finantzatu dira, ondoren zehazten diren bezala.

Proiektua	<i>Telema Buruko Osasun Zentroa</i>		
Herrialdea	Kongoko Errepublika Demokratikoa	GGKE	ECCA Romo
Laguntza	9.000,00 €	Guztira	18.000,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Telema Buru Osasuneko Zentroan kokatzen da, Kinshasan, Kongoko Errepublika Demokratikoan. Zentroak honako hau eskaintzen du: osasun arreta buru arazo larriak dituzten pertsonentzat, prestakuntza senitartekoentzat, eta osasun agentzientzat. Horrez gain, tailer bat eskaintzen du ere, patologia larriagoak dituztenek esku-lanak egin ahal izateko. Eguneko Zentro oso baten moduan funtzionatzen du, eta bertan egindako janaria eskaintzen dute. Emakumeak Hartzeko Zentro bat dauka ere, kalean baztertutako buru gaixotasunak dituzten emakumeei laguntzeko helburuarekin. Buru gaixoa babesik gabe dago, animismoa nagusi delako eta horregatik, egoera negatiboen errudunak dira. Horrez gain, zentroko gaixoak auzi belikoa jasandakoak dira eta horren ondorioz, depresioak eta buru gaixotasunak pairatzen dituzte. 2011. urterako, hurrengo emaitzak lortzea espero da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Arreta, diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena eskaini buru gaixoei. 2. Senitartekoei eta osasun eragileei prestakuntza eskaintzea buru gaixotasunak dituzten pertsonak detektatzeko eta haien jarraipena burutzeko. 		



Proiektua	<i>Eskolatzea Kapiri sektorean Kansanian.</i>		
Herrialdea	Kongoko Errepublika Demokratikoa		
GGKE	San Martín de Tours Misioen Taldea eta Posta Misiolaria		
Laguntza	40.000,00 €	Guztira	62.055,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Katanga probintzian kokatzen da, Kapiri herrian, Kansania eskualdean. Katangako hiriburua Lubumbashi da eta 1.700.000 biztanle ditu; Katangak 4 milioi biztanle dauka. Jarduera ekonomiko nagusia biziraupenerako nekazaritza da. Herrialdeko egoera dela eta, ezin da haurrak eskolaratzea bermatu. Estatuak ez du eskolen eraikuntzan inbertitzen, bereziki oihaneko zonaldean, eta irakasleek ez dute soldatarik jasotzen. Proiektuak biztanleen bizi kalitatea hobetuko du, eta eskolara joateko adinean daudenei lehen hezkuntzara, bigarren hezkuntzara eta unibertsitateko ikasketara iristeko bidea erraztuko die. 2011. urtean, hurrengo esparruetan jardutea aurreikusi da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eskolatutako haurrek bertara joaten jarraitzea mantentzea. 2. Bi sexu-etako gazteei unibertsitate eta lanbide heziketako ikasketetara iristeko aukera ematea. Onuradunak eskola adineko 220 neska-mutilak dira. 		



Proiektua	<i>Baso Indigenen Kudeaketa Monte Verdeko JLKan</i>		
Herrialdea	Bolivia	GGKE	Zabalketa
Laguntza	29.900,00 €	Guztira	38.331,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Monte Verde Jaterrizko Lurralde Komunitarioan (JLK) garatzen da, Santa Cruz Departamentuaren barruan. Guztira, 33 komunitate indigenak dira, 2.200 biztanlerekin. Gizon eta emakume txikitanoak migratzen dira bertan oso diru-sarrera eta enplegu eskasa dagoelako, ezta hezkuntza sistema egokirik ere. Azken hura arazo nagusienetariko bat da. Euren egoera hobetzeko helburuarekin, Estatuari basoa maneiatzeko plan orokorrak osatzea eskatu diote. Planak ustiaketak kudeatzen eta kontrolatzen dituzten Baso Komunitate Erakundeak (BKE) sortu behar ditu. Batzuek 2007. urtetik daramate funtzionatzen, baina geldirik daude euren ahuleziengatik. Esku-hartzearen xedea basoa kudeatzeko gaitasun teknikoak hobetzea da, BKEen iraunkortasuna eta errentagarritasuna bermatzeko. Hurrengo emaitzak lortzea espero da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gizonak eta emakumeek Baso Komunitate Erakundeen kudeaketa propioa eta eraginkorrak burutzeko gaitasun teknikoak bereganatzea. 2. BKEk genero ikuspegia baso kudeaketaren barne hartzea 3. Monte Verde JLKko zazpi komunitatek baso komunitarioko lurralde antolamenduko plan bat ezartzea, iraunkortasun irizpideak oinarri hartuta. <p>Proiektuaren zuzeneko onuradunak 143 familia dira, hau da, 788 biztanle. Horietatik, 382 emakumeak dira eta 406 gizonak.</p>		



Proiektua	<i>Tokiko gaitasun teknikoak sustatzea eta sendotzea garapenerako kudeaketa demokratikoaren ereduaren esparruan Sololáko 5 udalerritan</i>		
Herrialdea	Guatemala	GGKE	Lagun Artean – Ente Amigos
Laguntza	29.500,00 €	Guztira	48.304,54 €
Laburpena	<p>Esku-hartzea honako udalerritan burutu da: Sololá, San José de Chacayá, Santa María Visitación, San Andrés Semetabaj eta San Antonio Palopó. Bertan 141.417 biztanle bizi dira, %51,3 emakumeak dira eta %66 25 urtetik beherakoak eta %96 maia da. Indigenen berezko ezaugarria izan da gizarte antolaketa garrantzitsua edukitzea. 2002. urtean Hiri eta Landa Garapenerako Kontseiluei buruzko Legea eta Udal Kode berria sortu zirenetik aipatutako tradizioa babestuta geratu zen. Horiei esker kontseiluak sortu daitezke komunitate eta udal mailan. Kontseiluen sistemaren helburua garapenerako politika publikoen formulazioa antolatzea eta koordinatzea da. Hala ere, legeak ez du barne hartzen araua betetzen ez duten munizipalitateen aurkako zehapen mekanismorik, eta Estatuak ez du baliabiderik jartzen. Proiektuak sendotu nahi ditu udal agintariei eta komunitateei aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkien udal bulegoetako teknikarien gaitasun teknikoak, politikoak eta metodologikoak. Helburua prestakuntza prozesuak sustatzea da parte-hartze eta barne hartze kudeaketa demokratikoaren eredia sendotzeko. Hurrengo helburuak lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Prestakuntza tekniko eta politikoko curriculum bat osatzea udal langileei zuzenduta, zerbitzu publiko eta kudeaketa demokratiko eredu parte-hartzaileari buruz, genero ikuspegiarekin eta kultur egokitasunarekin. 2. Munizipalitateetatik sustatuta, teknikarien gaitasunak hobetzea, zerbitzu publikoari eta kudeaketa demokratikoaren eredu parte-hartzaileari dagokienez, genero ikuspegiarekin eta kultur egokitasunarekin. 3. Udal eraikin baten azpiegituren baldintzak hobetzea, prestakuntza prozesuetarako. <p>Esku-hartze honen zuzeneko onuradunak 227 funtzionario dira (35 emakume) eta 47 udalbatzen 47 kide (3 emakume).</p>		




Proiektua	<i>Sexu eta ugalketa osasuna sustatzea Coatepequeko 3 herritan, II. fasea</i>		
Herrialdea	Guatemala	GGKE	Medicus Mundi Bizkaia
Laguntza	29.900,00 €	Guztira	38.993,91 €
Laburpena	<p>Proiektua La Felicidad, San Vicente Pacayá eta El Reparo herrietan kokatzen da, Coatepeque udalerrian, Quetzaltenango. Coatepeque 123.000 biztanle ditu (%51 emakume); biztanleen %95 pobrezia baldintzetan bizi da. Guatemala femizidio tasa handiena duen munduko herrialdeen artean bat da. 2010. urtean, 680 emakume hil egin zituzten genero indarkeria zela eta, gehienak su armaz. Guatemalako, 2008. urtetik, “Femizidioaren aurkako lege” bat dauka. Horrek isun larriak hartzen ditu barne, baita kartzela zigorrak ere. Hala ere, kasu hauetatik, auzitegiek bakarrik %1,8 delituzko portaeratzat jotzen dute. Emakume nerabeen artean hildako-tasa altua dago, haurdunaldiarekin eta erditzearekin lotutako kausak direla eta. Ugalketa osasunak honako hauek hartzen ditu barne: arazoak eta konplikazioak prebenitzea eta kontrolatzea haurdunaldian, erditzea eta erditze ostea, ugalketa teknikak eta nahi ez diren haurdunaldiak prebenitzea. Ugalketa eskubideak oinarritzen dira, emakumeak askatasunez eta erantzukizunez, diskriminaziorik gabe, seme-alabak eduki nahi dituen ala ez, zenbat, eta izan nahi dituen aldizkakotasuna erabakitzeak dituen eskubideak onartzean eta errespetatzean. Honako hauek hartzen ditu barne: informaziorako eskubidea, sexu heziketa, eta euren ugalketak aukerak gauzatzeko beharrezko baliabideak eskura izatea. GIB/HISA tasa altua, nerabeen artean haurdunaldiak ematea eta genero indarkeriaren eragin handia dira sexu eta ugalketa eskubideak urratzearen arrazoi nagusiak. Proiektuaren helburua genero indarkeria, GIB, eta nerabeen haurdunaldiak prebenitzeko, gaitzea, arreta eskaintzea eta eragina sortaraztea da. Hauek dira lortzea espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Nerabeen haurdunaldiei eta genero indarkeriari buruzko oinarritzko ildo bat ezartzea. 2. Genero indarkeria eta nerabeen haurdunaldien lehen mailako arretarako protokoloa. 3. Osasun 30 sustatzailek eta 30 buruzagi gaztek GIB arazoaren jarraipena burutzen dute, haurdun dauden emakumeen kasuak eta arriskuan dauden gazteak diagnostikatuz, eta baita laguntza eta estaldura eskainiz ere, eramaileei eskaintako auto laguntzaren taldeen bidez. 		



Proiektua	<i>Baliabide hidrikoen optimizazioa eta laborantzen dibertsifikazioa Thanakantivaripalli komunitatean</i>		
Herrialdea	India	GGKE	Fundación Vicente Ferrer
Laguntza	19.000,00 €	Guztira	23.876,82 €
Laburpena		<p>Proiektua Thanakantivaripallin garatzen ari da, Bathalapalli Eskualdean, Anantapur Barrutian, Andhra Pradesh. Anantapur barruti lehorra da eta egoera klimatologiko txarra dauka. Lehorreak gero eta maizago ematen dira eta uraren kudeaketa ez da batere eraginkorra. Hori dela eta, basamortua gero eta gehiago hedatzen ari da, tenperatura altuen eraginez. Ekonomia biziraupenerako abeltzaintzan eta nekazaritzan oinarritzen da. Hura erabat hierarkizatuta dagoen kasta sistema batean antolatuta dago, eta horrek elikagaia nekazaritza ez den beste bide batetik lortzeko aukera mugatzen du. Biztanleen %80 nekazaritza bizi da, jernalari gisa lan eginez. Ia urte osoan zehar ez dute azaleko urrik eta akuiferoak ez dira berriz kargatzen. Horren ondorioz, biztanleek ez dute errekurso eraginkorrik urtean zehar. Orain arte, bertako ureztatze sistema uholde bidez zen, baina horrekin ur asko galdu egiten da (%25 lurrunketaren bidez), jarioek, horniketako galerek etab. eragindako galerak ahaztu gabe. Esku-hartzearen helburua da Anantapur eskualdeko gutxietsitako kasten nekazarien gizarte eta ekonomia egoera hobetzea. Xedea baliabide hidrikoak hobetzea eta laborantzak dibertsifikatzea da. Horretarako, hauek dira espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Anantapur eskualdeko gutxietsitako kasten 2 nekazarien berriztagarria ez den energia kutsatzailearekiko menpekotasuna murriztu da. 2. Hobetu da 2 abeltzainek erabilitako baliabide hidrikoen kudeaketa ordeko ureztatze sistemen ezarpenaren bidez. 3. Dibertsifikatu dira Thanakantivaripalli landa komunitateko laborantzak. 	

Proiektua	<i>Drogazaleen edo gizarte bazterketa arriskuan dauden eta familien bizitza hobetuz</i>		
Herrialdea	Ekuador	GGKE	Ayuda MAS
Laguntza	16.000,00 €	Guztira	22.818,36 €
Laburpena	<p>Proiektua Ekuadorren garatzen ari da, Manabí probintzian, zehazki, Manta, Montecristi eta Jaramijó kantoietako herrietan. Manabí kantoietan zatituta dago eta 1.186.025 biztanle ditu. Horietatik 320.000 gazteak dira. Mantak 192.322 biztanle ditu, eta gehienak hiri gunean bizi dira. Montecristi eta Jaramijó Manabítik gertu dauden bi kantoitxi dira. Ekuador droga igarotzeko herrialde bat zen, baina pixkanaka ekoizpen eta kontsumo alorrek gora egin dute. Drogak hartzen hasteko adina 14,8 urtetik 13,9 urtetara pasa da. Mantako gazteriar buruz egindako azterketaren arabera, kontsumoak gora egin du eta estupefazianteak hartzearekin lotutako delituak ugartu dira. Kontsumoa prebenitzeari dagokionez, ez dago berezko daturik, horiek ezagutzeko prozesuetan hutsuneak daude eta prebentzioa drogetan hastea eragiten duten kausei bakarrik dagokie. Horrez gain, tratamendu klinika gehienak pribatuak dira eta ez dute gazteentzako tratamendu zehatzik eskaintzen. Hein berean, formula terapeutiko desegokiak ugaltzen ari dira, drogazaleak izandako pertsonak eskaintza, azken hura izatea baldintza bakarra baita. Egoera horri aurre egiteko, gizarte eragileen Sare bat ezarri da eta 2011. urterako hurrengo helburuak markatu dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bideragarritasun azterketa bat egitea, Zentro Biomediko Integral Modeloa sortzeko. 2. Drogazaletasunerako Esku-hartze Osoko Sarea sendotzea, Manta, Montecristi eta Jaramijó Mankomunitaterako. <p>Proiektuaren onuradunak auzoko 15 sustatzaile boluntario, 88 irakasle eta orientatzaile, eskoletako 7.831 ikasle eta ikastetxeetako 17.618 ikasle dira.</p>		



Proiektua	<i>Antolatutako eta orekatutako parte-hartze komunitarioa sustatzea, San Bartolomé Perulapia udalerriko udal hezkuntza politikoa ezartzeko</i>		
Herrialdea	El Salvador	GGKE	Educación Sin Fronteras
Laguntza	29.700,00 €	Guztira	37.504,32 €
Laburpena		<p>Proiektua San Bartolomé de Perulapia udalerrian garatzen da, Cusclatán Departamentuan. Hauek dira El Salvadorreko arazo nagusiak: kanpo zor handia, pobrezia, gizarte inbertsio txikia, ustelkeria, behera doan nekazaritza ekoizpena, langabezia tasa altua, ingurumen hondatze handia, immigrazio tasa altua eta %14ra iristen den analfabetismo tasa. Testuinguru honetan, ekin beharreko apustu bat hezkuntzaren egoera hobetzea da, haren garapena hobetzeko bide gisa. Udal mailan, hiritarrek bertan hartzen dute parte Udal Kontseiluen bidez, hala ere, kideek oso prestakuntza gutxi dutenez, zaila da garapen politikak eta programak egituratzea. Horrez gain, parte-hartze kultur eskasa dago, eta gobernuek ere ez dute hau sendotzeko ezer egin. Zenbait udalerritan municipalitatea eta hiritarren artean kontrol eta egituratze organo bat sortu da. Tokiko Garapenerako Batzordeak dira. Horiek batzar desberdinetan antolatuta daude eta horien artean Hezkuntza eta Kulturakoa dago. Esku-hartzearen helburu orokorra udalerriko neska-mutilen eta nerabeen hezkuntzarekiko eskubide osoko aitortpena sendotzearen alde egitea da. Horretarako, helburu zehatza antolatutako eta orekatutako parte-hartze komunitarioa sustatzea da, udal hezkuntza politika ezartzeko. Hauek dira proiektuarekin lortzea espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Tokiko antolaketa egituretarako gaitasunak sendotzea hezkuntza kontrolatzeko jarduerak ezartzeko. 2. Hezkuntzako udal politikan oinarritutako jarduerak ezartzea Hezkuntza Instituzionaleko Programan eta 5 ikastetxeko Urteko Hezkuntza Programazioan. <p>Hauek dira proiektuaren zuzeneko onuradunak: 21 irakasle (18 emakume), 413 neska eta 451 mutil, komunitateko 125 lagun, CDL eta AMUDESCOM-ko 30 kide.</p>	

Proiektua	<i>Emakumeen garapen pertsonalaren eta ekonomikoaren alde eginez, gizarte aldaketaren alde egiten dugu</i>		
Herrialdea	Nikaragua	GGKE	Mugarik Gabe
Laguntza	29.900,00 €	Guztira	40.711,57 €
Laburpena	<p>Esku-hartzea Pilas Orientales komunitatean garatzen ari da, Masaya udalerrian, Masaya Departamentukoa. Bertan, 318.000 biztanle inguru daude, eta horietatik %50,13 emakumeak dira. Desberdintasunak areagotzen dira landa emakumeengan. Emakumeek oso finantza baliabide gutxi dituzte eskura eta are gutxiago lurraren edo etxebizitzaren jabe izateko aukera. Horrez gain, genero indarkeria egiturazko arazo bat izaten jarraitzen du, iaz 89 emakume akabatu zituzten Nikaraguan. Egoera honetan, emakumeen autonomia ekonomikoa euren jabekuntza lortzeko estrategiarik hobereena da; gainera, egiaztatu da emakumeek baliabide ekonomikoak gizonek baino hobeto kudeatzen dituztela, eta ondorioz, familia osoari mesede egiten diotela. Esku-hartze honen helburua komunitateko emakumeen egoera hobetzea da, euren jabekuntza ekonomikoaren bidez eta emakume gisa dituzten eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko gaitasuna emanez. Horretarako, hauek dira proiektuarekin espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Irakaskuntza eta gogoeta prozesua sustatzea emakumeek euren eskubideak ezagutu eta defendatu ahal izateko. 2. Nekazaritza gaietan etaazienda xehea gobernatzeko gaitasunak bereganatzeko programa pilotua sortzea. 3. Aleen eta barazkien ereintzan parte hartzen duten emakumeek euren eta familien elikadura bermatzen dute, produktuaren kontsumoaren eta merkaturatzearen bidez. 4. Antolatutako emakumeek ardien eta ahuntzen ekoizpen nahikoa lortzen dute, euren auto kontsumoa asetzeko eta soberan daudenak zonaldean merkaturatzeko. <p>Proiektuaren onuradunak 20 emakume inguru dira, etxeko andreak, eskola maila baxuarekin, askotan analfabetoak ez erabiltzeagatik, multiparoak, zerbitzu publiko gutxi eskura eta indarkeria arazoak dituztenak.</p>		



Proiektua	<i>Boliviako emakume indigenek, bertakoek eta nekazariak euren eskubideak exijitzeko, sustatzeko eta defendatzeko mekanismoak proposatu dituzte</i>		
Herrialdea	Bolivia	GGKE	Mundubat
Laguntza	29.800,00 €	Guztira	70.217,37 €
Laburpena	<p>Proiektua Paz, Cochabamba, Santa Cruz eta Chuquisaca Departamentuetan garatzen da. Herrialdeak 10.426.154 biztanle inguru ditu, horietatik %66,39 hiri gunetan bizi da, eta bertan, %51,34 emakumeak dira. Boliviak barne migrazio handia dauka, eta landa biztanleak hiri ingurura eta hirira bizitzera joaten dira. Landa gunea uzten dutenen %60 jatorrizko biztanle indigena identifikatzen dira. Emakumeak antolatuta daude, baina, erabaki politikoetan ez dute ia batere parte hartzen. Hiriko lana merkatu informalean garatzen da eta oso soldata txikia jasotzen du eta gizarte estaldura gutxiago ditu. Hala ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna modu formalean onartzen da, baina praktikan, ez du eraginik sortu jatorrizko emakumeen indigenengan. Horrez gain, honako egiturazko zailtasunei aurre egin behar diete: heziketa maila baxua, aukera falta eta diskriminazioa, aktiboki parte hartzea oztopatuz. Era berean, landa eta hiri inguruetako emakumeek diskriminazio hirukoitza pairatu behar dute, emakumea, indigena eta behartsua izateagatik. Indarkeriaren eragina ere hartu behar da kontuan, 10 emakumeengandik 8k etxeko indarkeriaren biktima izan direla onartzen baitute. Gaur egun, emakumeak indarkeriatik babesten dituzten legeak daude, hala ere, kasu hauen ebazpena eta arreta oso murrizta da. Politikan ordezkaturik dauden emakumeei dagokienez, indarkeria politikoa jasaten dute ere, euren buruak baztertuta ikusi nahi ez duten gizonen eskutik. Helburua Emakume Indigenen, Bertakoen eta Nekazarien gaitasun positiboak eta intzidentzia sendotzea da. Horretarako, hurrengo emaitzak lortzea espero da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Emakumeak Gizarte eta Politika Eskubideetan eta indarkeriarik gabeko bizitza batekiko eskubidean trebatzea. 2. Emakumeek nagusitasuna bereganatu dute euren eskubideen sustapenean eta defentsan, Politika Publikoen eta biztanleenganako sentsibilizazioaren bidez. <p>Prestakuntzak 400 emakumei mesede egingo die, gehienbat aimarak eta kitxuak. Horrez gain, femizidioei buruzko azterketa bat burutuko da.</p>		

Proiektua	<i>Hobekuntza eta sustapena Cisjordaniako emakumeen artean, sexu eta ugalketa osasuna eskuragarri jartzeko</i>		
Herrialdea	Palestina	GGKE	Biladi
Laguntza	29.900,00 €	Guztira	93.533,75 €
Laburpena	<p>Proiektua honako hauetan garatzen da: Nablus, Toubas, Qalqilia, Awarta, Al-Bathan, Al-Mazra'a, Kufor Ne'meh, Qalandia, Hahoul, Hebron, Husan eta Beit Sahour; denak Cisjordanian kokatuta. Azken urteotan, Palestinan oinarritzko gizarte zerbitzuek okerrera egin dute, okupazio militarra, prestakuntzarako aukera eskasak eta herrialdeko ekonomiaren eraispena direla eta. 2008. urtean, NPG %40 jaitsi zen, 2000. urtean lortutako mailarekin konparatuz. Egoera honek emakumeei kaltetzen die batez ere, eta baita euren osasunari ere. Palestinako emakumeek 5,44ko emankortasun tasa dute Cisjordanian eta 7,3koa Gazan. Elikadura urriaren eraginez, anemiak eta malnutrizioak gora egin dute, bereziki, haurdunaldietan. Azken horietan, emakumeen %60ak anemia izaten du. Horrez gain, bakarrik kliniketako %27ak ginekologia edo obstetrizia zerbitzuak eskaintzen ditu eta 20 ospitaletatik 11k soilik dute ama berrien atala; era berean, emakumeen %71 landa inguruetan bizi dira eta bertan osasun zentroek ez dituzte zerbitzu hauek exijitzen edo ez dute horrelako batere. Bestalde, kultur eta erlijio arauak emakumeei modu negatiboan eragiten diete. Ospitale batzuk ez dute onartzen antisorgailuak erabiltzea eta besteetan, berriz, emakumeek ez dute gizonek tratatzea onartzen. Emakumeek ez dituzte ezagutzen euren osasunarekin lotutako gai asko, askotan, eskolan ez dutelako sexu heziketarik jasotzen. Esku-hartze honen helburua zera da: emakumei sexu eta ugalketa osasun arloko kalitatezko zerbitzu eskuragarriak gerturatzea eta hobetzea, eta baita ere biztanleak, oro har, eta ikasleak sexu heziketarekiko sentsibilizatzea. Hauek dira lortu nahi diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 18.346 emakume izango dira sexu eta ugalketa osasun arloko kalitatezko zerbitzu eskuragarrien onuradun. 2. Ikasle gazteek eta biztanleek, oro har, informazio eta orientazio gehiago lortuko dute sexu eta ugalketa osasunarekin lotutako gai zehatzei buruz. <p>Espero da 18.346 emakume osasun zerbitzu hauen onuradun izatea.</p>		



Proiektua	<i>Emakumeen jabekuntzarako aukerak zabaltzea Armenia eta Ciudad Arce landa komunitateetan</i>		
Herrialdea	El Salvador	GGKE	Circulo Solidario Euskadi
Diru-laguntza	27.800,00 €	Guztira	100.436,14 €
Laburpena	 <p>Proiektua Ciudad Arce eta Armenia udalerrietan garatzen da, La Libertad eta Sonsonate Departamentuetan. Ciudad Arcek 44.819 biztanle ditu eta Armeniak, berriz, 27.744. Biak baztertutako guneak dira eta bertako gizarte eta ekonomia baldintzak ezegonkorak dira. Hango biztanleak, batez ere, herrialdeko landa sektoreko behe mailakoak dira. Emakumeek pairatzen dituzten desberdintasunak antzekoak dira eta ugalketa motako zereginak garatzea dagokie bakarrik. Gizonen menpe bizi dira erabat, ez baitute baliabideak erabiltzeko eta kontrolatzeko eta boterea banatzeko eskubiderik. Hezkuntzari dagokionez, oraindik alde handiak daude, hala ere, emakumeen hezkuntza egoera hobera doa pixkanaka. Bi udalerrietako emakumeek jabekuntzarako aukera gutxi dituzte. Esku-hartze honen helburua landa komunitateetako emakumeen jabekuntza areagotzea da. Hauek dira lortzea espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Komunitate antolaketa misoten estrategiak ugaritzea eta instituzioek gizonen eta emakumeen arteko kudeaketa eta bidezko sarbidea sustatzea. 2. Kontsumoko ekoizpen aukerei ekin egiteko aukerak hobetu ondoren <p>Espero da 70 emakumek proiektuan parte hartzea.</p>		

2.2. Erabilitako Liburuaren VI. Azoka Solidarioa

Diru-laguntzetarako deialdiaren bidez diruz lagunduriko proiektuez gain, 2011. urtean, **Getxoko Kultur Etxeak** “*Erabilitako Liburuaren VI. Azoka Solidarioa*” antolatu zuen ekainaren 2 eta 5 artean. Egun horietan, 15.000 ale salgai jarri ziren. Gai desberdinetako argitalpenak partikularrek liburutegiei egindako dohaintzetatik zetozen, eta aleak salgai jarri ziren euro bat inguruko prezio sinbolikoan. 13.900 euro bildu ziren eta Educación Sin Fronteras elkarteko proiektu batean erabili ziren.

Proiektua	Hezkuntza egoera hobetzea Mulukukú udalerriko 30 landa komunitatetan		
Herrialdea	El Salvador	GGKE	Circulo Solidario Euskadi
Diru-laguntza	13.941,41 €	Guztira	67.821,00 €
Laburpena	 <p>Proiektua Mulukukú udalerrian garatzen da, Ipar Atlantikoko Eskualde Autonomoan (RAAN); Mangauatik 250 kilometro ingurura. Bertan 36.861 biztanle daude.</p> <p>Biztanleria nahiko sakabanatuta dago landa komunitate txikietan. Horien artean oso gutxi ditu gizarte zerbitzuak, alegia; osasuna, edateko ura, energia elektrikoa... Hezkuntza mailan, Hezkuntza Ministerioak (MINED) RAANerako egindako Eskola Erroldaren arabera, biztanleen %82 landa gunetan bizi da eta biztaneen %50ak 19 urte baino gutxiago ditu. Batez beste, behartsuak, indigenak eta nekazaritzan lan egiten duten familien kide diren neska-mutilek 5 urte baino gutxiago ematen dute eskolan. MINEDen arabera, RAANeko biztanleen %32,4 analfabetoa da eta neska-mutileen %60 ez doa eskolara. Hala eta guztiz ere, Nikaraguako Karibeko Kostaldeak errekurtso natural ugari ditu. Baina ez dituzte horiek egoki ustiatzen eta horren ondorioz, arazo larriak sortzen ari dira; abeltzaintza estentsiboa lurrak hondatzen ari da, ekosisteman egokiak ez diren laborantzak sartzen ari dira eta basoak erabat suntsitzen ari dira. Horretaz gain, klima gero eta lehorragoa da, eta eurietan aldaketa bortitzak ematen ari dira eta horrek, hein berean, aldaketa handiak eragiten ditu nekazaritza zikloetan. Aipatutako egoeraren aurrean, proiektuak adierazitako arazoak funtsezko egileen prestakuntzarako proposamenean sartu nahi ditu, besteak beste, irakasleak eta komunitateko buruzagiak. Proiektuak hurrengo jarduerak aurreikusi ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza prozesuan inguruen arazoekin lotutako edukiak sartzea. • Sentsibilizazio kanpaina bat mantentzea ingurumen gaiei buruzko prestakuntza prozesuan zehar. • Udal garapenerako plana osatzerakoan eragina sortaraztea, ekologikoki iraunkorra izan dadin. <p>Hauek izango dira proiektuaren onuradunak: 30 irakasle, 60 komunitateko buruzagi, hezkuntza batzordetako 150 lagun eta 900 haur.</p>		

2.3. Euskal Fondoarekin sinatutako Hitzarmena

Euskal Fondoa (Lankidetzarako Tokiko Euskal Entitateen Elkarte) 1995. urtean sortu zen eta gaur egun tokiko 94 erakunde hartzen ditu barne, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %80 baino gehiago ordezkatuz. Bertan, alderdi politiko guztien ordezkariak hartzen dute parte.

Hauek dira Euskal Fondoa elkartearen helburuak:

- Garapenerako lankidetzaz sustatzea.
- Hiritarrak sentsibilizatzea.
- Koordinazio instituzionala nazioarteko lankidetzaren alorrean.

Getxoko Osoko Bilkurak, 2001eko maiatzaren 25ean eginiko bilkuran, Euskal Fondora atxikitzea ontzat eman zuen. Getxok dagokion kuotan parte hartzen du, biztanleen kopuruari dagokionez eta baita lankidetzarako udal aurrekontuaren %10ekin ere, proiektuak elkarrekin finantzatzeko gordeta. Getxon antolatu zen 2011ko urriaren 22ko Ohiko Batzarrean, Euskal Fondoak bere zuzendaritza batzordea berriitu zuen eta bertako presidente Imanol Landa Jauregi Getxoko Alkatea hautatu zuen.

Proiektua	<i>Euri drainatzeko 402,82 ml eraikitzea Gaspar Garria Laviana auzoan (Tangara). II. Fasea</i>		
Herraldea	Tipitapa, Nikaragua	Entitatea	Euskal Fondoa
Diru-laguntza	8.960,57 €	Guztira	8.960,57 €
Laburpena	<p>Testuingurua: Uholdeek gero eta gehiago eragiten diete tokiko ekonomiei eta ondorioz, ezinbestekoa da egiturazko jarduerak sakon aztertzea, euriaren efektua egoki maneiatzeko eta kontrolatzeko. Hiriko antolaketa gabeko hazkuntzak azalera iragazgaitzak sortzen ditu eta, ondorioz, azalak xukatzeko gune eskasak euriak drainatzeko arazoak areagotzen ditu. Tipitapa udalerriri gehien kaltetzen dioten arazoak, bai hiri gunean eta bai hiritik kanpoko auzoetan, osasun estolderia eta euri uretako drainatzea da. Gaspar García Laviana auzoko osasun estolderia eza aipatutako auzokoek gehien aipatzen duten premietako bat da. Ez dago euria drainatzeko sistema egokirik, ez dago euria drainatzeko lurpeko hodirik, ezta azaleko euri ubiderik ere, ez dauka etxeetan erabiltzeko ura isurtzeko sistemarik. Egoera honek urmaelak eta kutsadura sortzen ditu eta biztanleen osasuna arriskuan jartzen du.</p> <p>Euri drainatzearen premia oso larria da, malda natural urriaren, bertako ekialde sektoreko begetazio urriaren eta lurretako ura xurgatzeko gaitasun eskasaren eraginez.</p> <p>Helburuak: beherako eta arnas gaixotasunen intzidentzia murriztea haurrengan eta sektore ahulengan. Gaspar García L. auzoko bide azpiegitura eta irisgarritasuna sendotzea.</p> <p>Laburpena: García Laviana auzoari ingurumen saneamenduko oinarritzko azpiegitura hornitzea, euri drainatzea eraikiz, etxeetan erabiltzeko urak bideratzeko eta etxeetan uholdeak saihesteko.</p> <p>Onuradunak: 3.300 lagun (1.683 emakume eta 1.617 gizon).</p>		




Proiektua	<i>Etxe konexioak eta hondakin uretarako sistema babesteko obrak San Carlosen</i>		
Herrialdea	San Carlos, Nikaragua	Entitatea	Euskal Fundoa
Diru-laguntza	42.039,73 €	Guztira	231.595,00 €
Laburpena	<p>Testuingurua: Río San Juan Departamentuak, 7.292 km²-ko azalera du, eta 100.000 biztanle inguru ditu, sei Udalerritan banatuta: San Carlos, El Castillo, San Miguelito, Morrito, San Juan de Nikaragua eta El Almendro. 1950 – 2005 arteko errolden datuen arabera, departamentuko biztanleriak gora egin du nabarmen, migrazio tasa altua egon da eta modu desorekatuan garatu da. Río San Juan departamentuko biztanleriak 86.507 biztanle irabazi zituen, eta 9.089tik 95.596ra pasa ziren. Gaur egungo biztanle gehienak herrialdeko beste zonaldeetatik dator, eta ondorioz, nekazaritzako muga zabaldu egin da. Herri mugakideek gizarte eta ekonomia lotura sendoak ezarri dituzte Costa Ricarekin. Departamentuko biztanleria, nagusiki, landa gunekoa da, eta sakabanatuta dago 227 komunitateetan. Horiek, hein berean, 70 mikro-eskualde ingurutan multzokatuta daude. Biztanle guztietatik, %20,5 bakarrik bizi da hiri gunetan, %16,9 kontzentratutako landa herrietako erdigunetan – kokaleku motakoa; eta gainontzekoak, berriz, %62,6, sakabanatutako landa erkidegoetan. San Carlos hiriak batez besteko 39 msnm altuera dauka eta udalerriko ezaugarri topografikoak kontuan hartuta, bere erliebe orokorra izurtua da eta bere lurak oso hareatsuak, gris ilun kolorekoak eta ezaugarri plastiko eta itsaskorrekoak. Aurrekoaren eraginez, garai lehorrean, lurak uzkuratzen eta pitzatzen dira eta eurien garaian, berriz, eman egiten dute. Ia urte osoan heze mantentzen denez, erraz asko maneiatu daiteke.</p> <p>Helburuak: Hiriaren saneamenduaren alde egitea, San Carlos hiriko hondakin urak biltzeko eta tratatzeko sistema baten instalazioaren bidez, honako hauen kutsadura murrizteko: lur-azpia, azaleko urak eta bizitzeko gunea.</p> <p>Laburpena: Hiriko hondakin urak biltzeko eta tratatzeko sistema eraikitzeako obrak amaitzea, finantzatze mistoaren bidez (zati bat dohaintzaren bidez eta beste bat kreditu errebolbente baten bidez); etxeen eta osasun estolderiaren arteko konexioak eraikitzea San Carlos hiriko III. eta IV. zonaldeetan bizi diren 680 familientzat; babes harresiko 400 metro linealen eraikuntza eta bi xurgatze ekipo erostea Imhoff tanga guztiak eta dagoeneko tratatu diren hondakin urak husteko, egon daitezkeen uholdeak edo larrialdiak prebenitzeko.</p> <p>Onuradunak: Proiektuak zuzeneko onura eragingo dio 5.338 laguni (2.562 gizon eta 2.776 emakume). Zeharkako moduan, hiriko gainontzeko biztanleei on egingo die, hau da, 6.261 laguni (3.236 gizon eta 3.075 emakume) hondakin urak biltzeko eta tratatzeko sistema hornituz eta osatuz, guztira, zuzeneko edo zeharkako 11.649 onuradunentzat.</p>		



2.4. Garapenerako lankidetzako proiektuen banaketa geografikoa


Ondoren, 3. grafikoan, aurkezten da 2011. urtean finantzatutako proiektuen banaketa, zonalde geografikoaren arabera¹.

3. Grafikoa



Ikus daitekeen bezala, 2011. urteko proiektu gehienak Erdi Amerikan garatu dira nagusiki, bigarrenik, Hego Amerikan burutzen diren proiektuak daude, hirugarrenik Afrikako proiektuak, eta laugarrenik, berriz, Asian garatutakoak.

4. Grafikoa



¹ Bakarrik Garapenerako Lankidetzaz Sailaren aurrekontu partida propioaren zenbatekoak hartu dira barne, beraz, Erabilitako Liburuaren Azoka Solidarioan bildutakoa ez da datuetan islatzen.

Ehunekoa banatzeari dagokionez (4. grafikoan irudikatuta), Erdi Amerikak Getxoko Udalaren laguntzaren %57 baino gehiago hartzen du barne, ondoren, Hego Amerikakoa %18arekin, beraz, biak batuta, Amerikako Kontinenteak laguntzaren ia %76 hartzen du.

Iazkoari dagokionez, Erdi Amerikak laguntzaren ia %12 jaso du, eta %18ra iristen da 2009. datuekin konparatzen badugu.

Datuak modu zehatzagoan aztertuz, Erdi Amerikari dagokionez, Nikaragua da 2011. urtean laguntza gehiago jaso duen herrialdea, 116.000 euroekin, ondoren Guatemala, bertan 59.400 euro erabili baitira.

Afrikari dagokionez, Kongoko Errepublika Demokratikoa da errekurtsio gehien lortzen dituen, 49.000 euro hain zuzen ere. Saharari dagokionez, aipatu behar da proiektuei dagokienez, ez dela proiektuari inolako finantzazio zehatzik eman, ATFAL Sahara Aldeko Getxorekin sinatutako hitzarmena jarduera humanitariotzat jo baita.

Azkenik, Asiak bi proiektu ditu, bat Indian eta beste bat Palestinan.

III. GARAPENERAKO SENTSIBILIZAZIO ETA/EDO HEZIKETA PROIEKTUAK

Diru-laguntzen deialdia, eta batez ere, XIV. Getxotik Mundura Mundutik Getxorako zuzeneko exekuzioak sentsibilizazio proiektuak zehazten dituzte.

3.1. Diru-laguntzen deialdia

2011. urtean, lau proiektu finantzatu dira diru-laguntzen urteroko deialdiaren bidez. Hauek izan dira, zehazki, finantzaturako proposamenak:

Proiektua	Zabaldu Mundura Ikasteko		
Herria	Getxo	GGKE	Zabalketa
Laguntza	15.800,00 €	Guztira	23.641.00 €
Laburpena	<p>Gaur egungo testuinguruan, bizi garen munduan banakako arrakasta, erraz lortzeko dirua eta ospea bezalako balioei lehentasuna ematen zaie. Mezu eta balio horiek oihartzun handia dute komunikabideetan eta zaila da horiei ihes egitea. Proiektuak gazteei desberdintasun handiko mundu bat ezagutzera eman nahi die, gizarte bidegabekeria larriak ematen diren eta pertsonengan zuzeneko eragina sortzen duen mundu bat. Horretarako, hiru gai nagusi landuko dira: genero berdintasuna, Mugikortasunerako Giza Eskubidea eta boluntarioria. Proiektuaren metodologia lau oinarritan garatuko da: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea; UNESKOren XXI. Menderako heziketari buruzko 1996ko Txostena oinarri hartuta. Euskal esparruan, proiektuak kontuan hartzen du Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saileko Batxilergorako Curriculum Dekretua. Beraren bidez, ikasleek lortu beharreko oinarrizko gaitasunak definitzen ditu. Hein berean, proiektuaren eremuan gauzatuko diren unitate didaktikoek Milurtekoaren Garapenerako Helburuen ikuspegia aintzat hartuko dute. Proiektuaren xedea gizarte sentsibilizatua, trebatua eta konprometitua eraikitzearen alde egitea da. Horretarako, garapenerako lankidetzako gaien ezagutza eta azterketa sustatu nahi ditu, eta baita solidaritatea eta gizarte parte-hartzearen balioak ere, Getxoko batxilergoko 1. mailako ikasleen artean. Hauek dira lortzea espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleentzako Zabaldu Mundura Ikasteko material egokia. 2. Getxoko gazteak garapenarekin lotutako arazoei buruz sentsibilizatzea. 3. Batxilergoko 1. mailako irakasleek heziketa proposamena baliozkotzea. 		

Proiektua	Dalit errealtatea Anekalen, dokumentala		
Herria	Getxo	GGKE	Taldeka Lagunduz
Laguntza	11.200,00 €	Guztira	19.088,00 €
Laburpena	<p>Proposamenaren bidez, ezagutzera eman nahi dalitarrak bizi ari diren apartheid-a Indian, eta hain zuzen ere, landa gunetan ematen ari den egoera, eta zehazki Anekalen. Anekal Karnataka Estatutako Hegoaldeko Barrutian aurkitzen da Bangaloreko Hegoaldetik 80 km ingurura. 220.000 biztanle inguru ditu eta horietatik %40 dalit eta tribalak dira. Indian kastetan oinarritutako gizarte geruzatzen sendoa dago, eta horren eraginez, maila baxueneko kastek (horien artean dalitarrak daude) gizarte bazterte handia pairatzen dute, aipaturako kastakoak izateagatik bakarrik. Proiektuaren helburua Getxoko hiritarrei Anekaleko Dalit kolektiboaren apartheid sozialaren errealtatea ezagutzera ematea da.</p> <p>Horretarako, bizi diren egoera aditzera ematen duen dokumental bat egitea proposatu da. Aurreikusi da dokumentala Getxoko ikastetxe publikoetan eta pribatuetan jartzea, zehazki, DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. mailako eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako taldeetan. Horrez gain, aurreikusi da dokumentala 65 urtetik gorako udalerriko zentroetan ere ematea.. Dokumentala apirila eta ekainaren artean egituratuko eta garatuko da, hartara, dokumentala jarriko eta burutzen diren proposamen pedagogikoak osatuko dira 2011-2012 ikasturtean.</p>		

Proiektua	Klima aldaketaren ikuspegia Getxoko gazteei ezagutzera ematea, garapenaren aurkako mehatxu gisa		
Herria	Getxo	GGKE	UNESCO Etxea
Laguntza	12.000,00 €	Guztira	15.195,09 €
Laburpena	<p>Klima aldaketa klimaren aldaketan datza, negutegi motako gasak metatzearen ondorioz. Azken fenomeno hori gizakiaren jarduerarekin lotuta dago. Ondorioek planeta osoari eragiten diote. Hala ere, inpaktuak oso bestelakoak dira herrialdeen arabera: herrialde behartsuak ahulagoak dira, aberatsak, berriz, fenomeno horren eragile nagusiak dira. Munduko proposamena honela egituratu da: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuetako Esparru Hitzarmena (1992), Kyoto Protokoloa (2008-2012), Kopenhageko Gailurra (2008) eta Cancungo Gailurra (2010). Garatutako herrialdeek, arazoa arintzeko politikez gain, egokitze planak dituzte. Herrialde behartsuek ez dute erantzuna emateko gaitasunik; eta ondorioz, klima aldaketa garapenerako osagarritzko zama bat da. Bestalde, klima aldaketaren eta giza garapenaren arteko lotura argia da, aurkako fenomeno meteorologiko gehiago izateak lehenengo sektoreari kalte egiten baitio, herrialde behartsuen diru-sarreraren %80 ordezkatzeko dutena. Egoera horrek generoaren arraila areagotzen du, emakumeak direlako lehenengo sektorean lan egiten dutenak. Gazteei dagokienez, 10 eta 24 urte arteko 1.500 milioi gazte baino gehiago daude, eta horietatik, %70 herrialde behartsuetan bizi dira. Beraz, gazteak eta emakumeak ahulenak dira klima aldaketaren aurrean. Horri dagokionez, gazteak ez lirateke soilik egokitzapen eta arintze esfortzuen onuradun izan beharko, baizik eta arazoaren aurkako erantzunak definitzeko eta praktikan jartzeko prozesuan zeregin aktiboagoa edukitzeko aukera eduki beharko lukete. Proiektuak Getxoko gazteria mobilizatu nahi du klima aldaketa eta giza garapenean eragiten duen inpaktu negatiboa eztabaidagarri jartzen eta haren aurka aldarrikatzeko. Hauek dira burutu beharreko jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Gazteentzako zine-forum bat antolatzea. ➤ Gazteentzako tailerrak “Mobilizatu Klima Aldaketaren aurka” demarekin. ➤ Argazkigintza rally bat eta komiki bat osatzea gazteen eskutik. <p>Proiektua 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduko zaie.</p>		



Proiektua	Getxo, Bidezko Merkataritzaren aldeko hiria		
Herria	Getxo	GGKE	Emaus Fundación Social
Laguntza	15.000,00 €	Guztira	25.167,20 €
Laburpena	<p>Proiektu honen helburua aurrera pausuak ematea da, Getxo Bidezko Merkataritzaren aldeko hiri gisa ziurtatzeko. Horretarako, hurrengo pausuak eman nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Udalak Bidezko Merkataritzaren aldeko eta mota honetako produktuak kontsumitzearen aldeko ebazpen bat onztatzea. 2. Txikizkako eta sukaldaritza sektoreko konpromisoa, bidezko merkataritzako produktuak eskainiz. 3. Sektore pribatuko eta erakundeen konpromisoa, produktu hauek euren barne kontsumoan sartuz. 4. Programa koordinatzeko tokiko lan-taldeak sortzea. 5. Biztanleak Bidezko Merkataritzari buruz sentsibilizatzea. <p>Horrenbestez, proiektuak Getxoko Bidezko Merkataritza sustatu nahi du. Horretarako, hurrengo emaitzak lortzea espero da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bidezko Merkataritza sustatzen duen lan-talde egonkorra sortzea. 2. Gizarte erakundeak Bidezko Merkataritzan inplikatzeko. 3. Bidezko Merkataritza Getxoko merkatarien elkartearekin lan eginez, euren establezimenduetarako aukera gisa. 4. Udalari aholkularitza eskaintzea bere kontratazioetan klausula etikoak sartzei buruz. 5. Hiritarrei Bidezko Merkataritzaren ingurua ezagutzera ematen dien jarduerak. 6. Getxo Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiri gisako kandidatura aurkeztea. <p>Espero da udalerriko 2000 lagun inguru zuzenean sentsibilizatzea</p>		



3.2. Zuzeneko exekuzioa

3.2.1. Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2011

2011. urtean, abenduaren 11 eta 13 artean, Getxotik Mundura Mundutik Getxora Lankidetzarako XIV. Topaketak antolatu ziren. Horri dagokionez, Kultur Etxeko lankidetzaz eskertu nahi dugu, Areetako Estazio Plazan instalatutako karparen erdia eman baitzuten. Ekipamendu hori erabili ahal izatea oso garrantzitsua izan da, horri esker antolatutako jarduera guztiak garatu ahal izan direlako. Aldi berean, bbk erakundeak emandako laguntza eskertu behar da. Azken lankidetzaz horri topaketak antolatzen hasi ziren 1997. urtean ekin egin zitzaion.

Proiektua	Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2011. XIV. Topaketak		
Herria	Getxo	Laguntzaileak	Getxoko Kultur Etxea eta bbk.
Zenbatekoa	35.253,33 €		
Laburpena	<p>Aurreko edizioetako dinamikarekin jarraituz, Getxoko udalerrian jai gune bat sortu nahi da gizarte gaiekin, eta bertan, lankidetzaz arloan lan egiten duten tokiko erakundeek parte hartzeko, nagusiki haurrei zuzenduriko jarduerekin. Horren bidez, hiritarrei garapenerako lankidetzazko proiektuetan erabilitako funtsen xedea ezagutzera eman nahi zaie. Solidaritatearen inguruko jarduerak garatzeko gunean sortzen jarraitzeaz gain, generoen eta garapenerako lankidetzazaren arteko ekitatea azpimarratzen duen ikuspegi bat landu nahi da.</p> <p>Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Getxoko hiritarrei udalerrian kolaboratzen diren GGKE gerturatzea, jolasetarako gune baten barruan. - Biztanleei Saharako herriaren egoeraren berri ematea AFTAL Sahara Aldeko Getxoko proiektuak ezagutzera ematea, batez ere haurrak eta nerabeak inplikaturik. 		



3.2.2. Palestinari eta Nazio Batuetan sartzeak eragindako oihartzunari buruzko jardunaldiak

Proiektua	Palestinari eta Nazio Batuetan sartzeak eragindako oihartzunari buruzko jardunaldiak		
Herria	Getxo	GGKE	Biladi
Zenbatekoa	2.999,00 €		
Laburpena	<p>Hogei urte inguru igaro dira arabiarren eta israeldarren artean negoziazioei ekin egin zietenetik Madrilgo Bake Konferentzian, 1991eko urrian; ondoren Osloko Prozesua (1993-2000) etorri zen eta, bere krisiarekin, Israelgo alde bateko hamar urte baino gehiago. Hogei urte hauetan, Israel eta Palestina arteko gatazka berriz konfiguratu da. Bere funtsa aldatu gabe, Cisjordania eta Gazako palestinarren bizi baldintzak nabarmen okertu dira. Dagoeneko Cisjordania ez da kolono israeldarrak dituen taldedun lurralde palestinarra; talde palestinarrek dituen Israelgo lurralde bat bilakatu da. Gaza ez-leku bilakatu da, kanpotik okupatutako kokaleku bat, estalkirik gabeko kartzela milioi eta erdi lagunentzat, luze jo duten blokeoekin eta bereizi gabeko eraso sistematikoekin. Egoera honek nazioarteko eskubidea behin eta berriro urratzen du eta nazioarteko bakea eta segurtasuna etengabe mehatxatzen du. Hala ere, azken 24 hilabetez, lehenengo aldiz, palestinarrek hainbat ekimen hartu dute, eta eraginez, Israelgo gobernuaren erreakzionatzen ari da, arabiarren demokraziaren aldeko matxinaden babespean. Aurreko udazkenean, Palestinako Estatuak, 1967. urteko mugekin, Nazio Batuen Batzar Nagusira aurkeztu zen, bertan sartzeko ekimena aurkeztu zuen. Aurreikusitako arabera, Estatu kide gehienek aldeko botoa eman arren, hori ez zen nahikoa izan Palestina NBEko 194. Estatu bilakatzeko, Estatu Batuetako betoaren nagusitasunarengatik. Beto hori Obamak Ekialde Ertainean bere kanpoko politika garatzeko oinarri hartu nahi duen aurkako norabidean joan zen. Bere kanpo politikarantz duen gaitzondoa atzera elikatzeaz gain, berreskuratutako bere kapital politikoa, udaberri arabiarra ontzat emateagatik, berriz ere zalantzan geratu zen.</p>		

3.2.3. Giza Garapenari buruzko 2011. urteko txostena

Proiektua	IDH 2011		
Herria	Getxo	GGKE	UNESCO Etxea
Zenbateko osoa	3.000,00 €		
Laburpena	<div style="display: flex; align-items: flex-start;"> <div style="flex: 1;"> <p>LABURPENA Giza Garapenari buruzko Txostena 2011 Iraunkortasuna eta ekitatea: Etorkizun hobea guztiontzat</p>  </div> <div style="flex: 2; padding-left: 10px;"> <p>Giza Garapenari buruzko 2011. urteko txostena dela eta, eta garapenerako lankidetzako politiketan inplikatur dauden eragile desberdinak harkiko hurbiltzearen asmoz, bai publikoak eta bai gizarte zibilekoak; jardunaldi bat antolatu zen, honako aditu hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> Yayo Herrero, ingurumen politiketan aditua Alfonso Dubois, Euskal Herriko Unibertsitateko Garapenerako Lankidetzan eta Pobrezian aditua. Claudia Rosa Avendano, ingurumen eta kultur dibertsitatean aditua Adam Rogers, PNUDko ordezkaria. <p>Guztira, 60 lagunek hartu zuen parte jardunaldian eta hasieran planteatutako helburu guztiak bete ziren.</p> </div> </div>		

3.2.4. Giza Eskubideak okupatutako Saharan

Proiektua	Giza Eskubideak okupatutako Saharan		
Herria	Getxo	Laguntzailea	ATFAL Sahara Aldeko Getxo
Zenbateko osoa	3.0000 €		
Laburpena	Saharako okupatutako lurraldeetan Giza Eskubideak behin eta berriro urratzen ari direla ikusita, jardunaldi hau antolatzea erabaki zen bertako egoera hobeto ulertzeko.		

IV. HARRERA PROIEKTUAK

Getxoko Udalaren harrera proiektuak 1996. urtean sortu ziren, “Oporrak Bakealdian Programarekin”. Horri esker, Saharako neska-mutilak gurekin egon daitezke uztailean eta abuztuan. Azken urteotan (2003. urtetik), udan Saharako neska-mutilak hartzeaz gain, Getxoko familiek Europako Ekialdetik datozen neska-mutilak hartzen dituzte ere. Ekialdeko neska-mutilak bi arrazoi nagusiengatik etortzen dira: lehenengoa Chernobilgo tragedia pairatu dutenak hartzea da (eta neurri handi batean oraindik pairatzen jarraitzen dutenak) eta bigarrena, Errusiako umezurztegitik nagusiki datozen gazteak hartzea da.

Bi kasuek argi islatzen dute Getxoko hiritarren solidaritatea, eta 2011. urtean adierazi dute berriz harrera Getxon oso sustraitua dagoela.

4.1. Diru-laguntzetarako deialdia

2011. urteko deialdiaren bidez, Ekialdeko neska-mutilak hartzeko proiektu desberdin finantzatu dira. Nolanahi ere, xede horretarako diru-laguntza Getxon erroldatutako familientzat izan da. Oraingo honetan, nabarmen jaitsi da uda Getxon igarotzera Europako Ekialdetik etortzen diren neska-mutilen kopurua. 2008. urtean, guztira, 30 adin txikiko hartu ziren Getxon, 2009. urtean, berriz, guztira 9 izan ziren. Egoera hori 2010. urtean areagotu egin da, Udalean 4 gazterentzako harrera eskaera besterik ez direlako aurkeztu eta 2011. urtean egoera berdina eman da.

Proiektua	<i>Chernobilgo erradiazioak kaltetutako haur bielorrusiarra hartzea</i>		
Herrialdea	Ukraina	GGKE	Ukraina Gaztea
Diru-laguntza	400,00 €	Guztira	11.600,00 €
Laburpena	Proiektua 16 neska-mutilen familiak hartzean datza, Ukrainatik etorritakoak. Horiek Chernobilgo zentral nuklearrak eragindako erradiazioen kalteak pairatu zituzten. Hain zuzen ere, adin txikikoak Irpen eta Ivankiv zonaldeetatik datoz, zentralaren harresitik 7 kilometrora kokatuta. Getxo udalerriko familia 1ek adin txikiko bat hartu du.		

Proiektua	<i>Errusiako haurren aldi baterako harrera</i>		
Herrialdea	Errusia	GGKE	Bikarte
Diru-laguntza	1.200,00 €	Guztira	161.400,00 €
Laburpena	Proiektua Errusiako 86 neska-mutila eta 2 arduradun familietan hartzean datza, hurrengo eskualdeetatik etorritakoak: <ul style="list-style-type: none"> • Murmansk • Mendebaldeko Siberia. • Volgograd • Briansk. • Krasnoyarsk, 2011. urtean barne hartutako zonalde berria. Getxo udalerriko 3 familiek parte hartzen dute 3 adin txikikoen harreran		

4.2. ATFAL Sahara Aldeko Getxorekin sinatutako hitzarmena

Lehenik eta behin, adierazi behar da 1994. urtetik, Getxoko Udala Bir Ganduz dairarekin senidetuta dagoela. Erabaki hori 1994ko ekainaren 24ko Osoko Bilkuran hartu zen. Beraren bidez, Getxok Sahararekin duen lehentasunezko harremana aipatutako senidetzeari adostuta geratu zen.

1996. urtetik, Saharako neska/mutilen oporren programa garatzen ari da, Getxo udalerriko familiekin (1998. urtean bakarrik eten egin zen, erreferenduma antolatu behar omen zelako). Hala ere, 1999. urtean, eta proiektuarekin jarraitzen ari zelako, gauzatu egin zen ATFAL Sahara Aldeko elkartearen eta Getxoko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena. Beraren bidez, aipatutako elkartearen programa kudeatzeaz eta antolatzeaz arduratu zen.

Programa honek, hein berean, udaleko beste arloen eta erakundeen laguntza jasotzen du. Horien artean, Getxo Kirolak elkarteak emandako lankidetzaz eskertu behar dugu, neska-mutilei, lagun batekin, Faturako igerilekuan sartzen utzi dielako, “abonamendu bigunen” bidez. Ekimen hau Europako Ekialdetik etorritako neska-mutilei ere aplikatzen zaie.

Azken urteotako datuak konparatuta, Getxora etorri diren adin txikikoen kopurua nahiko egonkor mantendu da. Datuen arabera, 16 eta 13 adin txikiko artean hartu dira.

Bestalde, azpimarratu behar da beste euskal erakunderekin eta Euskal Fondoaren Saharako Koordinazio Unitatearekin (SKU) bilerak antolatu direla, euskal erakunde desberdinak inplikatzeko dituzten alderdi komunak hobetu ahal izateko.

2011. urteko harrerari dagokionez, ondoren, datu interesgarrienak laburbilduz aurkezten dira:

Proiektua	Oporrak Bakealdian Programa		
Herrialdea	Saharako Errefuxiatuen Kanpamenduak Tindoufen, Aljeria		
GGKE	ATFAL Sahara Aldeko Getxo		
Diru-laguntza	18.000,00 €	Zenbateko osoa	20.000,00 €
Laburpena	<p>Oporrak Bakealdian programa EAE osoan garatzen da, horregatik, Euskadira 452 neska-mutil inguru iristen dira.</p> <p>Hau da programaren helburu zehatza: Saharako neska-mutilen talde baten kultura zabaltzea eta osasuna hobetzea, Sahara Herriko egoera ezagutzera ematea eta kultur trukea haur hauek Getxoko familietan hartuz. Hauek dira espero diren emaitzak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Saharako neska-mutilak uztailean eta abuztuan hautatutako Getxoko familiekin biziko dira. 2. Saharako neska-mutilen taldeak orain arte liburuen bidez bakarrik ezagutzen duena esperimendatuko du (itsasoa, mendia, belarra, eraikinak, iturriak, teknologiak, itsasoan edo igerilekuan bainatzea) eta gaztelania eta euskara ezagutzera emango zaizkie eta hobetuko dituzte. 3. Eduki ditzaketen osasun arazoak detektatzea eta horiek tratatzea. 4. Gure kulturaren eta Saharako kulturaren arteko elkarrekintza gauzatuko da. <p>2011. urtean, Getxoko familiek 6 neska eta 9 mutil hartu zituzten.</p>		



4.3. Zuzeneko exekuzioa

Saharako eta Ekialdeko Europako neska-mutilen harrera dela eta, eta Getxoko familiei udako hilabeteetan (uztaila eta abuztua) egiten duten esfortzua eskertzeko, horiekin euren denbora eta oporrak konpartituz, Udalean jai bat antolatu zen, bai neska-mutilentzat eta bai horiek hartzen dituzten familientzat.



Getxoko Udalean 2011. urtean antolatutako harrera, iturria: Lankidetzaren Bizi Ezazu.

Topaketa 2011ko ekainaren 28an antolatu zen, Udalaren Osoko Bilkuretarako Aretoan, honako hauek bertaratuz: Alkatea (Imanol Landa), Lankidetzaren Saileko Zinegotzi Burua (Kepa Miñambres), eta tokiko udalbatzako beste kideak ere. Jaia Sahararik eta Ekialdeko Europatik etorritako haurrentzat batera antolatu zen, kulturen artekotasuna sustatu ahal izateko.

Jardueraren balorazioa positiboa izan zen, alde batetik uda gure artean igarotzen duten neska-mutilak gehiago gerturatu eta ezagutu zirelako eta bestalde, horiek hartzen dituzten familiei merezitako saria eman zitzaizkien, burutzen duten lan solidarioarengatik.

V. LARRIALDIETARAKO ETA/EDO LAGUNTZA HUMANITARIOAK

2011. urtean, larrialdietarako eta laguntza humanitarioko bi esku-hartze burutu dira.

5.1. Larrialdia Omerequen (Bolivia)

Proiektua	<i>Elikadurako larrialdietarako laguntza Omerequen</i>		
Herria	Bolivia	GGKE	Zabalketa
Data	2011ko otsaila	Diru-laguntza	6.000,00 €
Laburpena	Omereque udalerriko goi zonaldean (Bolivia) lehorte gogorra pairatzen ari dira, 9 hilabetez, betako flora eta faunarako ondorio latzak ekarriz, eta baita bertan bizi direnentzat ere. Eskualdeko ogi uzta gehienak galdu dira eta pertsonen funtsezko elikadura artatzeko etxola familiarren abere urriak akabatzen ari dira. Azken horrek oso ondorio garrantzitsuak ditu epe ertainera, abeltzaintza produktuen bitarteko diru-sarrerarik ez dagoelako (batez ere esnea). Mendebaldeko Trebakuntza Institutuak jarduera bat diseinatu du: bertako familia ahulei elikadurak pixkanaka entregatzeko programa batean datza, herriko buruzagien beraien bidez, baldintza okerrenetan dauden familiak artatzen direla bermatzeko.		

5.2. Euskal Karabana Solidarioa Sahararekin

Proiektua	<i>VI. Euskal Karabana Solidarioa Sahararekin, itxaropen bat elikatu</i>		
Herrialdea	Saharako Errefuxiatuen Kanpamenduak Tindoufen, Aljeria		
GGKE	ATFAL Sahara Aldeko Getxo		
Data	2011ko maiatza	Diru-laguntza	18.000,00 €
Laburpena	<p>Karabanaren helburua Saharako biztanle errefuxiatuen elikadura segurtasuna bermatzea da. Faktore hori funtsezkoa da errefuxiatuen osasunerako eta ongizaterako.</p> <p>Maila paralelo batean, eta barne helburu gisa, Euskadiko biztanleak lankidetzan aritzea elikadurak eta osasun produktuak karabana solidarioarako ekarriz, haurrak eta nerabeak bereziki inplikatu. Horretarako, gure erkidegoko Ikastetxe Publikoetan eta Pribatuetan elikagaiak jasotzea proposatzea.</p> <p>Hauek dira karabanarekin lortu nahi diren emaitzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Saharako osasun prebentzioko egitura sendotzea, nutrizio alorrari dagokionez. • Saharako Ilari Erdi Gorriko ibilgailu erabilgarriak osatzea. <p>Getxoko Udalaren laguntza humanitarioarekin kamioien erosketak eta garraio gastuak finantzatzen dira elikagaiak eta produktu higienikoak Tindoufeko errefuxiatuen kanpamentuetara helarazteko (Aljeria).</p>		



VI. GETXOKO GGKE SENDOTZEA

2011. urtean eta garapenerako lankidetzaren alorrean lan egiten duten Getxoko elkarten sarearen premiak ikusi ondoren, Udalaren Lankidetzaz Sailak, hirugarren aldiz, diru-laguntzetarako deialdi bat antolatu zuen, udalerriko elkarten sarea sendotzeko helburuarekin.

Helburua Getxoko GGKEen funtzionamendu eta kudeaketa hobekuntzaren gastuak partzialki finantzatzea da, era horretan, udalerriko elkarteetako sarea sendotuz.

Diru-laguntza hauek eskuratzeko baldintzen artean, udalerrian egoitza operatiboa edukitzea eta getxotarrek hura eskura izatea aurkitzen dira.

Diru-laguntzen deialdi honetarako 18.720,00 euro gorde dira. Horiek honako gastuei aurre egiteko erabiliko dira: langileak, gastu korronteak, publizitate eta propaganda gastuak, prestakuntza gastuak eta erakundeen kudeaketaren kalitatea hobetzeko gastuak.

Guztira zazpi entitate aurkeztu ziren deialdira, honako banaketarekin:

GGKE / ONGD	Diru-laguntza
Zabalketa	5.000,00 €
Getxo Pro Sahara ATFAL	2.166,46 €
San Martín de Tours	1.400,00 €
Educación Sin Fronteras	4.202,96 €
Perualde	2.480,85 €
Taldeka Lagunduz	1.177,15 €
Lagun Artean	2.292,58 €
Guztira	18.720,00 €

VII. BESTE JARDUERAK

Aurretik aipatutako proiektuez gain, Lankidetza Saila hainbat jardueretan zuzenean kolaboratu da edo parte hartu du, edo lankidetza politikak koordinatzeko foro desberdinetan parte hartu du.

Burututako jarduera desberdinen artean, nabarmendu behar dira Getxoko Udala azken urteotan kolaboratzen ari den aurkako alderdien bitartekariak, eta baita Hegoaldeko entitateak ere. Azken horiek, Euskadin daudela aprobetxatuz, Lankidetza Sailarekin biltzea egoki jo dute, burutzen ari diren lana ezagutzera emateko.

7.1. Burututako beste jarduerak

Kronologikoki, hauek izan dira Lankidetza Sailak zuzenean parte hartu duen edo kolaboratu den jarduera nagusienetarikoz batzuk:

- Otsaila, Udalean Saharako bandera ipintzea
- Otsaila, FEMPEkin kolaboratzea, Lankidetza Deszentralizatuari buruzko azterketan.
- Martxoa, “El Problema” Saharari buruzko dokumentala ematea.
- Martxoa, “Bizkaia 0,7%” Bizkaiko Foru Aldundiko erakusketa
- Maiatza, “IV Herri Krossa Pro Sahara”.
- Maiatza, Saharari buruzko Rachid Seghayer-en hitzaldia.
- Ekaina, Erabilitako Liburu Solidarioaren azoka.
- Iraila, Getxo Folk, “Espacio Solidario”
- Azaroa, lankidetza politikak ebaluatzeari buruzko Gasteizko jardunaldia: “Construyendo municipios más equitativos y democráticos”
- Azaroa, Algortako Merkatu Azokako erakusketa, Chernobil buruzkoa, Ukraina Gaztearen eskutik.
- Azaroa, honako topaketan parte hartzea: “Erosketa erantzulearen aldeko sarean lan egiten ari diren herri administrazioak: bidezko merkataritzaren aldeko hiriak”

VIII. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO LAN TALDEA

Getxoko Udalak, 2004. urtetik, Garapenerako Lankidetzako Lan Talde bat osatuta dauka eta berarekin aldian-aldian biltzen da.

Lan Taldea kontsulta izaerako organo bat da. Bertan, Lankidetzarako Garapenarekin lotutako sektore sozial desberdinak sentsibilizatzea eta inplikatzea nahi da, eta baita ere Herri Administrazioak (bere maila desberdinetan) eta ekimen solidarioek eta/edo hiritarren ekimenek, oro har, arlo honetan burutzen diren jarduerak koordinatzea.

Hauek dira Lan Taldeko zereginak:

- Udalerriko erakunde desberdinak ordezkatzea.
- Lankidetzaz Sailari udalerriak alor honetan dituen premiei eta esku-hartze lehentasunei buruzko aholkularitza eskaintzea, eta baita Administrazioak alor honetan kontuan hartu ditzakeen bestelako alderdiei buruz ere.
- Egoki deritzen txostenak, iradokizunak, azterketak eta proposamenak osatzea.
- Lankidetzarekin lotuta, udalerrian sortzen diren ekimen desberdinen arteko koordinazio bide gisa jardutea.

2011. urtean, Lan Taldea, Garapenerako Lankidetzaz Sailaz gain, ondoren zehazten diren erakundeez osatuta egon da:

ATFAL Sahara Aldeko Getxo, Ayuda MAS, Biladi, Ecce Romo, Lagun Artean, Medicus Mundi Bizkaia, Mugarik Gabe, Perualde, Grupo de Misiones de San Martín de Tours, Taldeka Lagunduz eta Zabalketa; Taldea 11 GGKEz osatu da.

Aztertutako gaien artean, honakoak nabarmendu daitezke:

- ✓ 2010eko Getxotik Mundura Mundutik Getxorako baterako ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak.
- ✓ 2011ko diru-laguntzen deialdia.
- ✓ Getxo udalerrian egoitza operatiboa duten GGKEen ohiko gastuetarako diru-laguntzen deialdia.
- ✓ Getxotik Mundura Mundutik Getxora, XIV. edizioa. prestaketa.

Guztira, 2011. urtean bost bilera antolatu dira:

Bilera data		Bertaratutako GGKE	Aztertutako gaien kopurua
11/02/01		9	8
11/07/18		8	5
11/11/09		8	5
GUZTIRA	3 bilera	25	Aztertutako 18 gai
Batez bestekoa		8,33 (%75,75)	6